

Berriro aukeratuko zenuke? Zergatik?

Ikaslea 1:

-“Zalantzarik gabe. Arestian esan dudanaren legez, agerian da merezi duela. Nire aburuz, ikastaroaren ezaugarriengatik denbora aprobeitatu daiteke, barnetegian baino gehiago. “

Ikaslea 2:

-“Zalantzarik gabe . Mirenjoni esker ez gara aspertu eta goiza oso azkar pasatzen da . Gainera, etxean egotea ahalbidetu dit umeekin egotea, 7 eta 9 urte dituzte , ez dute behar nirekin egon , baina ezin dira bakarrik egon . Beraz kurtso telematikoa hau aurkitu ez banu ez nukeen ikasiko euskara .

Ikaslea 3:

-“Dударik gabe berriro aukeratuko nuke Zornotzako Barnetegira joatea eta zintzotasun osoz esan behar dut, telematikoki ikastaroren bat eskaintzen badute, hori hartuko nukeela. Esperientzia, aurreko galderan esan bezala, oso ona iruditu zaidalako eta gauza berri eta beharrezkoak ikasi ditudalako azken aste hauetan. “

Ikaslea 4:

-“Bai. Lehen esan dudan bezala oso gustura sentitu naizelako eta oso tresna ona iruditzen zait ikastaro telematikoa. Jendea animatuko nuke!”

Ikaslea 5:

-“Berriro aukeratuko nuke, zeren eta oso interesgarria eta dinamikoa baita. Gainera, etxetik ikastea oso eroso dela iruditzen zait.”

-“Bai, dudarik gabe. Momentu batzuetan interneten bidez ikasteak aukera asko ematen dizkit. Lehen esan dudan kontziliatzeko tresna erabilgarria da, eta gainera, Pandemia honekin arriskurik gabe ikasten jarraitu dezakezu. “